

steilas-ek ESKATU DIO CRISTINA URIARTE HEZKUNTZA SAILBURUARI, BERTAN BEHERA UTZ DEZALA HEZIBERRI2020 EGITASMOA

- **steilas**ek argi eta garbi adierazi dio sailburuari, Heziberri2020 egitasmoarekin daukan erabateko desadostasuna
- HEZIBERRIk ez duela LOMCE saihesten (aplikatu baizik), ez duela eskola publikoa lehenesten eta eredu gerentziala eta merkantilizazioa dakartzala besteak beste.
- Eragileen arteko adostasunak bilatzea eta Curriculumei dagokien dekretua Legebiltzarrerera eramatea eskatu dio
- **steilas** sindikatuak hirugarren fase hau ere bertan behera uzteko eskaria luzatu dio

Asteartean, abenduak 1, Hezkuntza sailak **steilas** sindikatua bilera batetara deitu zuen, Heziberri 2020 Planaren hirugarren egitasmoaren mintzatzeko asmoz.

Beste behin, **steilas**ek argi eta garbi adierazi dio sailburuari, Heziberri2020 egitasmoarekin daukan erabateko desadostasuna. Prozedura demokratikoa ez izateaz gain – eragileen mailakatzea eman da hasieratik, langileen ordezkariak kanpo utziz- edukiekin goitik beherako desadostasuna agertu dugu. Halaber, publikatzeaz dauden curriculumak aztertuta, zera ondoriozta dezakegu: HEZIBERRIk ez duela LOMCE saihesten (aplikatu baizik), ez duela eskola publikoa lehenesten eta eredu gerentziala eta merkantilizazioa dakartzala besteak beste.

Halaber, bigarren fasean balizko Euskal hezkuntza legea goitik behera baldintzatuko duten gaiak jasotzen ditu. Aurrera jarraitu aurretik eragileen arteko adostasunak bilatzea eta Curriculumei dagokien dekretua Legebiltzarrerera eramatea, bozkatua izan dadin, eskatu dio **steilas** sindikatuak sailburuari.

Honegatik guztiagatik, **steilas** sindikatuak hirugarren fase hau ere, finean pribatuentzako finantziario hutsera mugatuko dena bertan behera uzteko eskaria luzatu dio Hezkuntza Sailari, ez baitira gutxienez baldintzak ematen Hezkuntza Lege Berri baten egitasmoa aurrera eramateko